Sin./Fdo.: MIREN ITXASO ALVAREZ MADARIAGA 2024-03-19
ENPLEGUA SUSTATZEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE EMPLEO

Sin./Fdo.: MARIA SUSANA GONZALEZ ROMULO 2024-03-19
ENPLEGUA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE EMPLEO

Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2024-03-19
ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-03-26
GZko 10.gaia onartuta - Aprobado, asunto 10) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**ERABAKIA,** Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Dema Enpresa Garapenaren eta Bizkaiko enpresa-elkarteen arteko 4 hitzarmen onartzen dituena, Laborlan 2024 proiektua gauzatzeko zuzeneko dirulaguntza emateko dena.

**ACUERDO** por el que se aprueban 4 convenios entre la Diputación Foral de Bizkaia, Dema Empresa Garapena y agrupaciones empresariales de Bizkaia, por los que se concede subvención directa para la ejecución del proyecto Laborlan 2024.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eginkizuna da berdintasunaren, elkartasunaren, gizarte kohesioaren eta enpleguaren aldeko politika publikoak sortu eta bultzatzea Bizkaian, euren egoera pertsonala, gizarte egoera edo familia-egoera dela-eta bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten herritarrei zerbitzuak emanez; eta arreta gune nagusi izan behar ditu tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboa, gizartetik baztertuta dauden edo horrela geratzeko arriskua duten pertsonen kolektiboa, herritarren lanerako

El Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, en el impulso y la promoción del empleo y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gaitasunen eta enpleguaren sustapena, eta, halaber, giza garapen jasangarriaren sustapena. Horretarako, genero-politikak, aniztasuna kudeatzeko politikak eta lankidetzaren eta garapenaren arlokoak xedatu behar ditu.

las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

“DEMA—ENPRESA GARAPENA” elkartearen (hemendik aurrera, DEMA) helburu orokorra hauxe da: enplegua, norbere kontura zein beste batzuen kontura, sortzeko eta gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko eta gizarte-zerbitzuak jasotzeko era guztietako programak abian jartzeko nahiz burutzeko behar diren kudeaketa-jarduerak egitea.

La Asociación de Apoyo al Desarrollo Empresarial “DEMA-ENPRESA GARAPENA”, en adelante DEMA, tiene como objeto general la realización de las actividades necesarias para la gestión de la puesta en marcha y ejecución de todo tipo de programas relacionados con el empleo por cuenta ajena y propia, así como la inserción laboral de colectivos en riesgo de exclusión social y servicios sociales.

DEMAko bazkideen artean daude Bizkaiko ikastetxeak, enpresa pribatuak eta enpresa elkarteak, bai eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila ere. Hala, hain zuzen ere, izaera bereziko elkartea da, gizarteratzea errazten duten eta enpresen beharrizanak betetzen dituzten programen kudeaketan.

DEMA es una entidad que cuenta entre sus socios con centros de enseñanza de Bizkaia, empresas privadas y asociaciones empresariales, así como con el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, constituyendo una asociación de carácter singular en la gestión de programas que facilitan la inserción laboral y cumplen con las necesidades de las empresas.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta DEMAk estrategia bera partekatzen dute enpleguaren arloan, langabeen enplegagarritasuna hobetzeko, prestakuntza eta enplegu programa mistoen bidez, konpetentzia profesionalak eta lan-esperientzia eskuratzeko.

La Diputación Foral de Bizkaia y DEMA comparten estrategia en materia de empleo, para la mejora de la empleabilidad de las personas desempleadas, mediante los Programas mixtos de Formación y Empleo, para la adquisición de competencias profesionales así como de una experiencia laboral.

LABORLAN prestakuntza espezializatuko programa bat da, enpresen beharrak eta langabezian

LABORLAN es un programa con formación especializada que conjuga tanto las necesidades de las empresas como la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dauden pertsonen lanerako egokitzapena bateratzen dituena.

adaptación al trabajo de las personas en desempleo.

Prestakuntza- eta -enpleguko programak tresna eraginkorrak dira langabezia-mailak murrizteko, eta, beraz, oso baliabide baliagarriak dira pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko, batez erek laneratzeko zailtasun handienak dituztenena. Tresna erabilgarriak dira, prestakuntza, lan-esperientzia eta, Laborlanen kasuan, lan-orientazioa eta laguntza uztartzen dituztelako.

Los programas de empleo son una herramienta eficaz para reducir los niveles de desempleo, por lo que son un recurso muy válido para mejorar la empleabilidad de las personas, especialmente aquellas con mayores dificultades para su inserción (personas desempleadas de larga duración, mayores de 45 años, jóvenes y mujeres) residentes en Bizkaia. Son una herramienta útil porque combina formación, experiencia laboral, orientación laboral y acompañamiento

Programaren helburua langabeak laneratzea da, benetako lanarekin txandakatutako lanbide-kualifikazioaren bidez.

Este programa~~,~~ tiene como finalidad la inserción laboral de personas desempleadas mediante su cualificación profesional en alternancia con el trabajo efectivo.

LABORLANen helburua bikoitza da: batetik, pertsonen enplegagarritasuna hobetzea, enplegutik eta enplegurako trantsizioak, garapen pertsonala eta lanbide-sustapena errazteko; eta, bestetik, enpresen lehiakortasuna hobetzea, gaitasun profesionalak merkatuaren egungo eta etorkizuneko eskakizunetara egokituz.

El objetivo de LABORLAN es doble: Por una parte mejorar la empleabilidad de las personas para facilitar sus transiciones desde y hacia el empleo, su desarrollo personal y su promoción profesional; y por otra mejorar la competitividad de las empresas ajustando las competencias profesionales a los requerimientos actuales y futuros del mercado.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetza behar du langile kualifikatuen eskaera handia duten sektoreetako ordezkaritza-erakundeekin, jardun nahi den sektore bakoitzean esperientzia eta lidergoa ematen duten erakundeekin, eta DEMArekin, enpleguko foru agentzia den aldetik, programa egikaritzeko buru

A tal fin, la DiputacIón Foral de Bizkaia necesita la colaboración con entidades representativas de sectores en los que exista alta demanda de personal cualificado, entidades que aportan experiencia y liderazgo en cada sector en el que se pretende actuar, y con DEMA como agencia foral de empleo, que liderará

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

izango baita.

Elkarren artean erlazionatuta dauden eta gizarte hobeari laguntzea helburu duten enpresa-taldeek, kudeaketan eta emaitzetan bikainak diren erakundeak sustatuz, zenbait jarduketa prestatu dituzte laguntza- eta birkualifikazio-proiektuak egiteko. Haien helburua langabezian geratu diren Bizkaiko pertsonak berriz ere laneratzea lortzea da.

Horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta DEMAren helburuak eta interesak bat datozela egiaztatuta, funtsezkotzat jotzen da DEMArekin eta ordezkaritza-sektoreetako lau erakunderekin lau lankidetza-hitzarmen sinatzea, LABORLAN programa gauzatzeko, pertsonen enplegagarritasuna sustatzeko eta bereziki azpimarratzeko lan-merkatuan sartzea zailtzen dutenak. Programa hau gauzatzeko aurrekontua 402.175,43 eurokoa da guztira..

GAIA - Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea (aurrerantzean GAIA) irabazi asmorik gabeko enpresa elkartea da, eta 1983an eratu zen Euskadin. Bere misioa Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazio sektorearen garapena eta hazkundea sustatzea da, eta horrez gain, Informazio eta Ezagutza Gizartearen garapenari laguntzeko, sektorearen teknologiak bereganatzea ahalbidetzea eta horiek modu eraginkorrean erabiltzea ere bada.

la ejecución el programa.

Las agrupaciones de empresas interrelacionadas por sectores cuyo propósito es contribuir a una sociedad mejor, promoviendo organizaciones excelentes en su gestión y resultados, han elaborado una serie de actuaciones para la realización de los proyectos formación-empleo cuyo objeto es la inserción en el mercado de trabajo de personas de Bizkaia, en situación de desempleo.

Constatada, por tanto la coincidencia entre los objetivos e intereses de la Diputación Foral de Bizkaia, los de DEMA, se considera fundamental la suscripción de cuatro convenios con DEMA y cuatro entidades de sectores representativos, para la ejecución del programa LABORLAN, promover la empleabilidad de las personas, haciendo un especial hincapié en aquéllas que tienen más difícil el acceso al mercado laboral. El presupuesto total, para la ejecución de este programa, asciende a la cantidad de 402.175,43 euros.

La Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco - GAIA (en adelante GAIA) es una asociación empresarial sin ánimo de lucro constituida en 1983 en el País Vasco con la misión de impulsar el desarrollo y el crecimiento del Sector Electrónico-Informático y de Telecomunicaciones y favorecer la asimilación y utilización eficiente de las tecnologías del sector con el objetivo de colaborar en el desarrollo de la Sociedad de la Información y del Conocimiento.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

GAIAren barruan dauden enpresek Euskadiko ekonomiarentzat berrikuntza indarra eta trebetasunen erakartzea eratzen dute, eta enpresa horien helburua trebetasun horiek Euskadiko ekonomiara transmititzea da. Ezagutzan intentsiboa den sektorea da, 303 enpresa eta 22.000 lanpostu zuzen baino gehiago dituena. Talentu ekonomikoaren harrobia hornitzeko eta Euskadi bere alorreko bikaintasun erdigune bezala kokatzeko lan egiten dute.

Las empresas que aglutina GAIA constituyen una fuerza de innovación y atracción de capacidades para la economía vasca, su propósito es articular la transmisión de estas capacidades al conjunto de la economía vasca. Es un sector intensivo en conocimiento, constituido por 303 empresas y más de 22.000 empleos directos. Trabajan para alimentar la cantera del talento tecnológico y posicionar a Euskadi como centro de excelencia en su ámbito.

Bizkaiko Etxegileen eta Higiezin Sustatzaileen Elkartea (hemendik aurrera "BIEBA" deituko diogu) eraikuntzaren eta higiezinen sustapenaren sektoreko enpresa nagusiak biltzen dituen erakundea da, eta sektorearen interes legitimoak defendatzea du helburu nagusia, baita parte-hartzaileen enplegagarritasunera bideratutako prestakuntza proiektuak garatzea ere.

La Asociación de Constructores y Promotores de Bizkaia (en adelante denominada como "ASCOBI"), es una entidad que agrupa a las principales empresas del sector de la construcción y la promoción inmobiliaria siendo su objetivo principal la defensa de los intereses legítimos del sector, desarrollando también proyectos de formación encaminados a la empleabilidad de las personas participantes.

Bizkaiko Hondeatzaile Elkartea (hemendik aurrera, "BIE") tamaina desberdineko enpresak biltzen dituen erakundea da, eta indusketa, obra zibila, eraispena eta hondakinen kudeaketa egiten ditu.

La Asociación Vizcaína de Excavadores (en adelante denominada como "AVE-BIE"), es una entidad que integra empresas de diferente tamaño y realizan las actividades de excavación, obra civil, demolición y gestión de residuos.

BIEren helburua Bizkaiko obra zibileko indusketako eta eraikuntzako enpresen interesak ordezkatzea da, haien lehiakortasuna sustatuta eta parte hartzen duten pertsonen enplegagarritasunera bideratutako prestakuntza proiektuak garatuta.

AVE-BIE tiene como objetivo representar los intereses de las empresas de excavación y construcción de obra civil en Bizkaia, impulsando su competitividad y desarrollando también proyectos de formación encaminados a la empleabilidad de las personas participantes.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Euskal Autonomia Erkidegoko Osasunerako Zientzia eta Teknologia Enpresen Klusterra Basque Health Cluster da, eta elkartutako enpresen interes komunak ordezkatzen, kudeatzen, sustatzen eta defendatzen ditu, administrazio publikoekin eta biozientzien eta osasunaren arloko beste erakunde batzuekin lankidetzan, parte-hartzaileen enplegagarritasunera bideratutako prestakuntza proiektuak garatuta.

El Clúster de Empresas de Ciencia y Tecnología para la Salud del País Vasco es Basque Health Cluster y representa, gestiona, fomenta y defiende los intereses comunes de las empresas asociadas, en colaboración con las administraciones públicas y con otras organizaciones del ámbito de las biociencias y la salud, desarrollando proyectos de formación encaminados a la empleabilidad de las personas participantes.

Aipatutako lau erakundeek dirulaguntza eskaera aurkeztu dute ordezkatzen dituzten enpresa-sektoreetan Laborlan proiektua garatzeko, langabeak kluster bakoitzeko enpresa elkartuetan sar daitezen lortzeko, proiektura bideratutako baliabideen eraginkortasun handiena bilatu nahian.

Las cuatro entidades citadas han presentado solicitud de subvención para el desarrollo del proyecto Laborlan en los sectores empresariales que representan, a fin de conseguir la inserción de las personas desempleadas entre las empresas asociadas en cada cluster, buscando la mayor eficiencia de los recursos destinados al proyecto.

DEMAk proiektu honetan parte hartuko du jarduera hauetan:

a) Komunikazio-kanpaina egitea. Programa bere osotasunean ezagutaraziko du jendaurrean.

b) Parte-hartzaileak erakartzen eta hautatzen laguntzea, baita inskripzioak kudeatzea ere, eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa egiaztatuta.

c) Enplegurako eta lan-aktibaziorako trebetasunei buruzko prestakuntza ematea, 25 ordukoa

La participación de DEMA en este proyecto consistirá en la realización de las siguientes actuaciones:

a) Realización de campaña de comunicación, realizará la difusión pública del programa en su globalidad,

b) Colaboración en la captación, y selección de participantes, así como la gestión de las inscripciones comprobando la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos.

c) Impartición de formación en habilidades para el empleo y para la activación laboral con una duración

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

parte-hartzaile bakoitzeko.

d) Laneko laguntza eta bitartekotza ekintzak koordinatzea.

e) Programako jardueren jarraipena, kontrola eta ikuskapena.

Erakunde bakoitzaren jardunak, besteak beste, hauexek izango dira:

- Enpresa elkartuen arteko komunikazio-kanpaina, Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailarekin koordinatuta.
- Laguntzea eta programarako hautagaiak aukeratzea, banakako diagnostikoa eta profilak egitea. Enplegurako ibilbide diseinatuko da, eta ibilbide hori garatzeko laguntza pertsonalizatua emango da.
- Oinarrizko konpetentzia digitalei buruzko prestakuntza, 15 ordukoa.
- Parte-hartzaileak dagokion espezialitatean gaitzeko prestakuntza-ibilbide egokia diseinatzea eta ematea.
- Bitartekaritza, hau da, enpresak aztertzea eta erakartzea, lan-eskaintzak eta lan bila dabiltzan langileak harremanetan jartzeko.

Proiektu bakoitza hauexetan egituratzen da: prestakuntza teknikoko zerbitzua ematea, gaitasun digitalei buruzko prestakuntza, laguntza eta bitartekaritza. Fase praktiko bat izan dezake, hitzarmen partikular bakoitzaren barruan berariaz zehaztuko dena.

de 25 horas por persona participante.

d) Coordinación de las acciones de acompañamiento e intermediación laboral

e) Seguimiento, control y supervisión de las actuaciones del programa.

Las actuaciones de cada entidad, serán entre otras, las siguientes:

- Campaña de comunicación entre las empresas asociadas en coordinación con el Departamento de Empleo Cohesión Social e Igualdad.
- Acompañamiento y selección de personas candidatas al programa, diagnóstico individualizado y elaboración de perfiles. Se diseñará un itinerario para el empleo, y se realizará un acompañamiento personalizado para desarrollar dicho itinerario.
- Formación en competencias digitales básicas con una duración de 15 horas.
- Diseño e impartición del itinerario formativo idóneo para capacitar a las personas participantes en la especialidad correspondiente,
- Intermediación, que consistirá en la prospección y captación de empresas, para poner en contacto las ofertas de trabajo con los trabajadores que buscan un empleo para su colocación.

Cada proyecto se estructura en la prestación del servicio de formación técnica, formación en competencias digitales, acompañamiento e intermediación laboral pudiendo tener una fase práctica, que dentro de cada convenio

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

particular se detallará específicamente.

Proiektu guztiek 2024ko martxoaren 1etik 2024ko abenduaren 15era arteko atzeraeragina izango dute..

Todos los proyectos se ejecutarán con carácter retroactivo entre el 1 de marzo de 2024 y el 15 de diciembre de 2024.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak beharrezkotzat jotzen du proiektu hori babestea, Bizkaiarentzat interes publiko, sozial eta ekonomiko handia duelako. Aurrekontuan badago behar beste diru esleituta, 402.175,43 euro hain zuzen, 0904/G/241116/45100, 202ko aurrekontu-aplikazioaren eta 2013/0048 “Laneratzea” proiektuaren kargura.

El Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, considera necesario apoyar este proyecto por su gran interés público, social y económico para Bizkaia. Existe consignación presupuestaria suficiente por importe de 402.175,43 euros con cargo a la aplicación presupuestaria 0904/G/241116/45100, proyecto 2013/0048 “Inserción Laboral”, del ejercicio 2024.

Proiektua oso interesgarria da Bizkairako, zeren eta langabezia mailak gutxitzen laguntzen baitu, eta oso baliabide baliagarria da pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko, batez ere laneratzeko zailtasun handienak dituztenena, enplegua eraldatzen ari diren joeretan esku hartzeko, eta Bizkaiko garapen sozioekonomikoan laguntzeko.

Este proyecto es de gran interés para Bizkaia, ya que contribuye a reducir los niveles de desempleo, resultando un recurso muy válido para mejorar la empleabilidad de las personas, especialmente aquellas con mayores dificultades para su inserción, para intervenir en las tendencias que están transformando el empleo, y para contribuir en el desarrollo socioeconómico de Bizkaia.

Horregatik, eta Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26. artikuluan eta 20.2c) artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezkotzat jotzen da “GAIA” Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea, "BIEBA" Bizkaiko Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkartea , "AVE-BIE" Bizkaiko Hondeatzaileen Elkartea eta

Por esta razón y, en virtud de lo dispuesto por el artículo 26 en relación con el 20.2c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el Régimen Jurídico General de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, se considera necesario el otorgamiento a “Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco – GAIA, a Asociación de Constructores y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Basque Health Cluster elkartea, EAEko osasunerako zientzia eta teknologiako enpresen klüsterra, "BASQUE HEALTH CLUSTER" sozietateei Laborlan proiektua garatzeko dirulaguntza ematea.

Promotores de Bizkaia – "ASCOBI"-; a Asociación Vizcaina de Excavadores-"AVE-BIE", y a Asociacion Basque Health Cluster, Clüster de empresas de ciencia y tecnología para la salud del país vasco, "BASQUE HEALTH CLUSTER" de una subvención para el desarrollo del proyecto Laborlan.

Diru-laguntza abian jartzeko eta kudeatzeko, hitzarmen bat sinatu behar da erakunde bakoitzarekin.

Para la puesta en marcha y gestión de la subvención, es preciso celebrar un convenio con cada una de las entidades.

Hitzarmen honen esparrua eta bertan gauzatu beharreko alderdiak zehaztu behar dira; izan ere, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra araupetu duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20. artikuluko 2. puntuko c) idatz-zatian xedatu da aparteko kasuetan zuzenean eman ahal izango direla dirulaguntzak, hain zuzen ere interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa dela-eta, eta/edo behar bezala frogatutako beste arrazoiren bat, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudenean. Horixe da aurkezten zaigun kasua; izan ere, "GAIA" Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea, "BIEBA" Bizkaiko Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkartea , "BIE" Bizkaiko Hondeatzaileen Elkartea eta Basque Health Cluster elkartea, EAEko osasunerako zientzia eta teknologiako enpresen klüsterra, "BASQUE HEALTH CLUSTER" aurkeztutako proiektuek unean uneko irtenbide azkarra eta eraginkorra eman nahi diote egungo

Es preciso determinar el ámbito de estos convenios y los aspectos que en el mismo se han de materializar, ya que la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral dispone en su artículo 20.2.c) que podrán concederse de forma directa, con carácter excepcional, aquellas subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública. Es éste el caso que se nos presenta, ya que los proyectos presentados por la "Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco – GAIA, Asociación de Constructores y Promotores de Bizkaia – "ASCOBI"-; Asociación Vizcaina de Excavadores-"AVE", y Asociacion Basque Health Cluster, Clüster de empresas de ciencia y tecnología para la salud del país vasco, "BASQUE HEALTH CLUSTER", pretenden dar una solución puntual, rápida y eficaz a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

egoera ekonomikoaren ondorioz sortutako salbuespenezko egoera bati.

una situación excepcional creada a consecuencia la actual coyuntura económica.

Erakunde bakoitzak, bere jarduera-sektorean, langabeen kopurua murrizten lagundu nahi du, haien kalteberatasun-egoera larriagotu ez dadin. Ildo horretan, egoera horren ondorioz langabezian geratzen diren pertsonak laneratzeko aukerak justifikatzen du deialdi publiko batean laneratzea ezinezkoa izatea. Gainera, aurreikusitako jarduerak ez dira diruz lagunduko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sail honen dirulaguntzak arautzen dituzten foru-dekretuen bidez, eta diruz lagundu nahi diren jarduerek berekin dakarten interes publiko eta sozial nabarmena gehitu behar zaie.

Cada entidad, en su sector de actividad, pretende colaborar en la disminución del número de personas desempleadas, a fin de no agravar la situación de vulnerabilidad de las mismas. En este sentido el horizonte de la inserción laboral de las personas que como consecuencia de dicha situación quedan en el desempleo, justifica la imposibilidad de realización en una convocatoria pública. Además, las actuaciones previstas no son objeto de subvención mediante los Decretos forales reguladores de subvenciones de este Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, debiendo añadirse el marcado interés público y social que implican las actuaciones que se pretenden subvencionar.

Bestalde, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamenduak 52. artikuluan ezartzen du dirulaguntza mota horiek arautzen dituzten arauek zer alderdi jasoko dituzten. Halaber, espedientean sartu behar da dirulaguntza kudeatzen duen organoaren txosten bat, berezia dela justifikatzen duena, interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak azaltzen dituena, edo deialdiaren zailtasuna justifikatzen duten beste batzuk.

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 52 establece los extremos que incluirán la normas que regulen este tipo de subvenciones debiendo asimismo incluirse en el expediente un informe del órgano gestor de la subvención justificativo su carácter singular, de las razones que acreditan el interés público, social, económico o humanitario, u otras que justifican la dificultad de su convocatoria.

Azaldutakoa dela bide, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-

Por todo ello, en virtud de lo establecido en el artículo 9 de la Norma Foral 5/2005,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 9. artikuluan eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Diru-laguntzen Erreglamenduaren 12.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari aurkezten zaio proposamen hau, onar dezan:

de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 12.3 del Reglamento Foral de Subvenciones aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, a propuesta de la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, se somete a la aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, la siguiente propuesta de

ERABAKIA

ACUERDO

LEHENENGOA:
Lau hitzarmen egiteko baimena ematea, Foru Administrazioak Laborlan 2024 proiektua gauzatzeko ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua 20.2c) artikuluan aurreikusitako salbuespenezko zuzeneko dirulaguntza bat emateko.

Hitzarmen horien testuak I., II., III. eta IV. eranskin gisa erantsi zaizkio akordio honi.

Aipaturiko lau hitzarmenak Bizkaiko Foru Aldundiaren (IFK: P4800000D, DEMA Enpresa Garapena enpresa-garapenari laguntzeko elkartea (IFK: G-48408405) eta honako enpresa-sektore hauek ordezkatzen dituen erakunde bakoitza: “GAIA” Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea, "BIEBA" Bizkaiko Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkartea , "BIE" Bizkaiko Hondeatzaileen Elkartea eta Basque Health Cluster elkartea,

PRIMERO:
Autorizar la celebración cuatro convenios por los que se concede una subvención directa excepcional, prevista en el artículo 20.2c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, para la ejecución del proyecto Laborlan 2024

Los textos de dichos convenios se incorporan como Anexo I, II, III y IV al presente acuerdo.

Los convenios se celebrarán entre la Diputación Foral de Bizkaia, CIF: P4800000D, la Asociación de apoyo al desarrollo empresarial DEMA Enpresa Garapena con CIF G-48408405 y cada una de las entidades representativas de los sectores empresariales siguientes: Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco – GAIA, Asociación de Constructores y Promotores de Bizkaia –

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

EAEko osasunerako zientzia eta teknologiako enpresen klüsterra, "BASQUE HEALTH CLUSTER".

BIGARRENA:
Baimenak berekin dakar, inplizituki, lau erakunde bakoitzari dirulaguntza ematea onartzea, baldintza suntsiarazle baten mende geratzen baita: baldintzak betetzea eta laguntza honen onuradun izateko inolako debekurik ez izatea hitzarmena formalizatu aurretik.

HIRUGARRENA:
Diru-laguntzaren zenbatekoa 402.175,43 eurokoa izango da, eta 2024 aurrekontuko partida honen kargura egingo da: 0904/G/241116/45100, 2013/0048 proiektua ("Laneratzea"), honela banatuta:

1. "GAIA" Jakintza Industrien eta Teknologia Aplikatuen Elkartea (IFK: G 20082509); zenbatekoa: 185.364,44 euro.

2. " BIEBA" Bizkaiko Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkartea (IFK: G48099774) 72.836,59 euro.

3. " BIE" Bizkaiko Hondeatzaileen Elkartea (IFK: G48090070), 75.987,81 euro.

4. "BASQUE HEALTH CLUSTER"

"ASCOBI"-; Asociación Vizcaina de Excavadores-"AVE", y Asociacion Basque Health Cluster, Clüster de empresas de ciencia y tecnología para la salud del país vasco, "BASQUE HEALTH CLUSTER".

SEGUNDO:
La autorización conlleva implícitamente la aprobación de la concesión de la subvención a cada una de la cuatro entidades que queda sometida a la condición resolutoria de que se cumplan los requisitos y no estar incursa en ninguna de las prohibiciones para adquirir la condición de beneficiaria de esta ayuda en un momento anterior a la formalización del Convenio.

TERCERO
La cuantía de la subvención por importe de 402.175,43 euros se realizará con cargo a la siguiente partida presupuestaria del presupuesto 2024: 0904/G/241116/45100, proyecto 2013/0048 "Inserción Laboral" con la siguiente distribución:

1. Asociación de Industrias de Conocimiento y tecnología – GAIA –con CIF G 20082509, por importe de 185.364,44 euros.

2. Asociación de Constructores y Promotores de Bizkaia - "ASCOBI", con CIF G48099774, por importe de 72.836,59 euros.
3. Asociación Vizcaina de Excavadores "AVE", con CIF G48090070, por importe de 75.987,81euros
4. Asociacion Basque Health

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Euskal Autonomia Erkidegoko biozientzien eta osasunaren sektoreko elkartea (IFK: G95585055), 67.986,59 euro.

Cluster de Empresas de Ciencia y Tecnología para la Salud del País Vasco, "Basque Health Cluster", con CIF G95585055, por importe de 67.986,59 euros.

LAUGARRENA:
Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena emango zaio hitzarmena sinatzeko, baita hitzarmena garatu, aplikatu, funtsezkoak ez diren aldaketak egin eta ebazteko ere, balizko itzulketa-espedienteak eta dirulaguntzaren baldintzetan funtsezkoak ez diren aldaketak (gehieneko zenbatekoari dagozkionak izan ezik) egiteko espedienteak izapidetu eta ebaztea barne.

CUARTO:
Facultar a la Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para la firma del referido convenio, así como, para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo, incluyendo la tramitación y resolución de eventuales expedientes de reintegro, así como de modificación de las condiciones de la subvención, excepto en lo que se refiere a su cuantía máxima.

Enplegua Sustatzeko Zerbitzuko burua. / Jefa Servicio de Empleo. ITXASO ALVAREZ MADARIAGA

O.E./VºBº

Enplegua Sustatzeko zuzendari nagusia. / Directora General de Empleo. MARÍA SUSANA GONZALEZ ROMULO

**Aurreko tramitean ezarri denarekinba, Gobernu Kontseiluari aurkeztu bahra zaio./De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.**

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko foru diputatua / la Diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. TERESA LAESPADA MARTINEZ

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

I. ERANSKINA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN, DEMA-ENPRESA GARAPENAREN ETA EUSKAL HERRIKO EZAGUTZA ETA TEKNOLOGIA INDUSTRIEN ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA. LABORLAN 2024 PROIEKTUA. GAUZATZEKO

Teresa Laespada Martínez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna sustatzeko Saileko foru diputatua; BFAren izenean (IFZ: P4800000D) eta haren ordezkari moduan jardun du, ahaldun nagusiaren uztailaren 6ko 170/2023 Foru Dekretuaren bidez emandako izendapena dela bide.

Gloria Múgica Conde andrea (NAN: 22.729.540-C), DEMA - ENPRESA GARAPENA (hemendik aurrera, Dema) enpresa-garapenari laguntzeko elkarteko zuzendari kudeatzailea den aldetik (IFK: G-48408405), Bilboko notario Carlos Ramos Villanueva jaunaren aurrean 2015eko urriaren 13an emandako 4.074 protokolo-zenbakiko notario-ahalordea betez.

Tomás Iriondo Astigarraga jauna (NAN: 72 572 537 Q), "GAIA" Asociación de Industrias de Conocimiento y tecnología Euskal Herriko Ezagutza eta teknologia industrien elkartearen (hemendik aurrera, "GAIA") izenean eta haren ordezkari gisa, 2018. urteko martxoaren 19ko notario-ahalordearen arabera (456 zenbakia, Juan Ignacio Gomeza Villa jaunaren aurrean,

ANEXO I

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, DEMA-ENPRESA GARAPENA Y ASOCIACIÓN DE INDUSTRIAS DE CONOCIMIENTO Y TECNOLOGÍA – GAIA. PARA LA EJECUCIÓN DEL PROYECTO LABORLAN 2024.

Teresa Laespada Martínez, Diputada Foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia (Nif P4800000D), actuando en virtud de nombramiento efectuado mediante Decreto Foral 170/2023, de 6 de julio, de la Diputada General,

Gloria Múgica Conde, con DNI 22.729.540-C actuando en calidad de Directora-Gerente de la Asociación de apoyo al desarrollo empresarial DEMA - ENPRESA GARAPENA (en adelante Dema) con CIF G-48408405, en virtud del apoderamiento notarial con nº de protocolo 4.074 otorgado ante el notario de Bilbao D. Carlos Ramos Villanueva en fecha 13/10/2015.

Tomás Iriondo Astigarraga con DNI nº 72 572 537 Q, en nombre y representación, como apoderado de la "– GAIA – Euskal Herriko Ezagutza eta teknologia industrien elkartea" (en adelante denominada "GAIA") según poder notarial de 19 de marzo de 2018 (número456 ante D. Juan Ignacio Gomeza Villa en Bilbao), con CIF G 20082509 y domicilio social en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bilbon); IFK: G 20082509; egoitza soziala: Donostiako Portuetxe Bidea 14, Ibaeta eraikina, lehen solairua, Gipuzkoa.

San Sebastián – Donostia calle Portuetxe Bidea 14 Edificio Ibaeta Planta primera en Gipuzkoa.

Aldeek aitortzen dizkiote elkarri honako hitzarmena gauzatzeko beharrezko gaitasuna eta eskumena eta hauxe

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente convenio y en su virtud.

ADIERAZTEN DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eginkizuna da berdintasunaren, elkartasunaren, gizarte kohesioaren eta enpleguaren aldeko politika publikoak sortu eta bultzatzea Bizkaian, euren egoera pertsonala, gizarte egoera edo familia-egoera dela-eta bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten herritarrei zerbitzuak emanez; eta arreta gune nagusi izan behar ditu tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboa, gizartetik baztertuta dauden edo horrela geratzeko arriskua duten pertsonen kolektiboa, herritarren lanerako gaitasunen eta enpleguaren sustapena, eta, halaber, giza garapen jasangarriaren sustapena. Horretarako, genero-politikak, aniztasuna kudeatzeko politikak eta lankidetzaren eta garapenaren arlokoak xedatu behar ditu.

PRIMERO

El Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, en el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

Bizkaiko Foru Aldundiak, DEMAk eta GAIAk estrategia bera partekatzen dute enpleguaren arloan, langabeen enplegagarritasuna hobetzeko, prestakuntza eta enplegu programa mistoen bidez, gaitasun profesionalak eta lan-esperientzia bat eskuratzeko.

La Diputación Foral de Bizkaia, DEMA y GAIA comparten estrategia en materia de empleo, para la mejora de la empleabilidad de las personas desempleadas, mediante los Programas mixtos de Formación y Empleo, para la adquisición de competencias profesionales así como de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

una experiencia laboral.

LABORLAN enplegu eta prestakuntza programa bat da, enpresen beharrak eta langabezian dauden pertsonen lanerako egokitzapena bateratzen dituena.

LABORLAN es un programa con formación especializada que conjuga tanto las necesidades de las empresas como la adaptación al trabajo de las personas en desempleo.

Prestakuntza eta enpleguko programak tresna eraginkorrak dira langabezia-mailak gutxitzeko, eta, beraz, oso baliabide baliagarriak dira pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko, batez erek laneratzeko zailtasun handienak dituztenena. Tresna erabilgarriak dira, prestakuntza, lan-esperientzia eta, Laborlanen kasuan, lan-orientazioa eta laguntza uztartzen dituztelako.

Los programas de empleo son una herramienta eficaz para reducir los niveles de desempleo, por lo que son un recurso muy válido para mejorar la empleabilidad de las personas, especialmente aquellas con mayores dificultades para su inserción (personas desempleadas de larga duración, mayores de 45 años, jóvenes y mujeres) residentes en Bizkaia. Son una herramienta útil porque combina formación, experiencia laboral, orientación laboral y acompañamiento

Programa horren helburua langabeak laneratzea da, benetako lanarekin txandakatutako lanbide-kualifikazioaren bidez.

Este programa, tiene como finalidad la inserción laboral de personas desempleadas mediante su cualificación profesional en alternancia con el trabajo efectivo.

LABORLANen helburua bikoitza da: batetik, pertsonen enplegagarritasuna hobetzea, enplegutik eta enplegurako trantsizioak, garapen pertsonala eta lanbide-sustapena errazteko; eta, bestetik, enpresen lehiakortasuna hobetzea, gaitasun profesionalak merkatuaren egungo eta etorkizuneko eskakizunetara egokituz.

El objetivo de LABORLAN es doble: Por una parte mejorar la empleabilidad de las personas para facilitar sus transiciones desde y hacia el empleo, su desarrollo personal y su promoción profesional; y por otra mejorar la competitividad de las empresas ajustando las competencias profesionales a los requerimientos actuales y futuros del mercado.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetza behar du langile kualifikatuen eskaera handia duten sektoreetako

A tal fin, la DiputacIón Foral de Bizkaia necesita la colaboración con entidades representativas de sectores en los que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ordezkaritza-erakundeekin, jardun nahi den sektore bakoitzean esperientzia eta lidergoa ematen duten erakundeekin, eta DEMArekin, enpleguko foru agentzia dena aldetik, programaren egikaritzearen buru izango baita.

exista alta demanda de personal cualificado, entidades que aportan experiencia y liderazgo en cada sector en el que se pretende actuar, y con DEMA como agencia foral de empleo, que liderará la ejecución el programa.

GAIA - Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea (aurrerantzean GAIA) irabazi asmorik gabeko enpresa elkartea da, eta 1983an eratu zen Euskadin. Bere misioa Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazio sektorearen garapena eta hazkundea sustatzea da, eta horrez gain, Informazio eta Ezagutza Gizartearen garapenari laguntzeko, sektorearen teknologiak bereganatzea ahalbidetzea eta horiek modu eraginkorrean erabiltzea ere bada.

La Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco - GAIA (en adelante GAIA) es una asociación empresarial sin ánimo de lucro constituida en 1983 en el País Vasco con la misión de impulsar el desarrollo y el crecimiento del Sector Electrónico-Informático y de Telecomunicaciones y favorecer la asimilación y utilización eficiente de las tecnologías del sector con el objetivo de colaborar en el desarrollo de la Sociedad de la Información y del Conocimiento.

GAIAren barruan dauden enpresek Euskadiko ekonomiarentzat berrikuntza indarra eta trebetasunen erakartzea eratzen dute, eta enpresa horien helburua trebetasun horiek Euskadiko ekonomiara transmititzea da. Ezagutzan intentsiboa den sektorea da, 303 enpresa eta 22.000 lanpostu zuzen baino gehiago dituena.. Talentu ekonomikoaren harrobia hornitzeko eta Euskadi bere alorreko bikaintasun erdigune bezala kokatzeko lan egiten dute.

Las empresas que aglutina GAIA constituyen una fuerza de innovación y atracción de capacidades para la economía vasca, su propósito es articular la transmisión de estas capacidades al conjunto de la economía vasca. Es un sector intensivo en conocimiento, constituido por 303 empresas y más de 22.000 empleos directos. Trabajan para alimentar la cantera del talento tecnológico y posicionar a Euskadi como centro de excelencia en su ámbito.

BIGARRENA

Hitzarmen honen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiaren, DEMAren eta GAIAren arteko lankidetza antolatzea, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiak GAIArI 185.364,44 euroan emandako dirulaguntza bideratzea ere, dirulaguntza

SEGUNDO

La finalidad del presente convenio es articular la colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia, DEMA y GAIA) así como canalizar la subvención otorgada por la Diputación Foral de Bizkaia a favor de GAIA por importe de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

horretarako baldintzak eta konpromisoak ezarriz.

185.364,44 euros, estableciendo las condiciones y compromisos a los que se ajusta la misma.

Horrela, aldeek lankidetza-esparru bat sortzea adostu dute, unean uneko egoera bati berehalako erantzuna emateko, GAIAk proiektua garatuz.

Con ello, las partes acuerdan generar un marco de colaboración para dar una respuesta inmediata a una situación puntual, mediante el desarrollo del proyecto por parte de GAIA.

Proiektuaren helburua lanbide-gaikuntza, lan-esperientzia eta parte-hartzaileak ahalik eta laneratze handiena lortzea da.

El objetivo del proyecto se concreta en la capacitación profesional, experiencia laboral y búsqueda de la máxima inserción laboral de los participantes en el mismo .

HIRUGARRENA

GAIAK jarraian zehazten diren 2024ko ekitaldirako proiektuak aurkeztu ditu Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailean:

TERCERO

GAIA ha presentado en el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad la realización del proyecto Laborlan en el Sector tecnológico para el ejercicio 2024, así las actuaciones a realizar son las siguientes:

Cooding bootcamp formatuan espezializatutako bi prestakuntza-ibilbide diseinatu eta ematea; aurrez aurreko prestakuntza intentsiboa da, programazioko gaitasunak garatzeko, zehazki, net teknologiarekin Cloud aplikazioak garatzeko eta FULL STACK Web Developer Javascript eta Python web-aplikazioak garatzeko.

Diseño e impartición de dos itinerarios formativos especializados en formato cooding bootcamp, se trata de una formación intensiva presencial para el desarrollo de competencias en programación, en concreto, desarrollo de aplicaciones Cloud con tecnología net y desarrollo aplicaciones web FULL STACK Web Developer Javascript Y Python.

Proiektua honelaxe egituratzen da: laguntza- eta bitartekotza-zerbitzua ematea, prestakuntza teknikoa, konpetentzia digitalei buruzko prestakuntza eta enpresako prestakuntza

El proyecto se estructura en la prestación del servicio de acompañamiento e intermediación, formación técnica, formación en competencias digitales, y formación práctica en empresa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: H7ZU-EWMX-OS6S-BOQD
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

praktikoa.
Aurrez aurreko prestakuntza teoriko eta praktikoaren aldian, programako parte-hartzaile bakoitzak beka bat jasoko du.

Proiektu guztiek 2024ko martxoaren 1etik 2024ko abenduaren 15era arteko atzeraeragina izango dute.

LAUGARRENA
Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren aldeko konpromisoari eusten dio, eta, horregatik, Enplegu, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren jarduera guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta eta oraindik dauden desberdintasunak murrizteko neurriak finkatuta egiten dira, batez ere enpresa-munduan.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, hitzarmenaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planak esparru estrategikoa eskaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko, 2021-2024 ekitaldietan.

BOSGARRENA
Hitzarmen honen izapidetzeari gehitzen zaio generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena eta

Durante el período de formación presencial teórica y práctica, cada participante en el programa percibirá una beca.

El proyecto se ejecutará con carácter retroactivo entre el 1 de marzo de 2024 y el 15 de noviembre de 2024.

CUARTO
